

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

“Vitoria-Gasteiztik Arabako Parke Teknologikorako VC-2 bizikleta bidea eraikitze proiektua”-k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Foru Gobernu Kontseiluak, 2024ko otsailaren 27an egindako bilkuran, 85/2024 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Vitoria-Gasteiztik Arabako parke teknologikorako VC-2 bizikleta bidea eraikitze proiektua” jendurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioen erantzuna Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra deklaratzeko. Presazko okupazioa deklaratzeko. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 1eko 497/2023 Erabakiaren bidez, onespina eman zitzaizen “Vitoria-Gasteiztik Arabako parke teknologikorako VC-2 bizikleta bidea eraikitze proiektua”ri, haren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako banakako zerrendari, eta hura jendurrean jartzeko nahitazeko izapideari.

Jendurrean egon den aldian, alegazio idazki bat aurkeztu du Noryeste Ureztatzaileen Elkarrearen lehendakariak eta beste idazki bat aurkeztu du epez kanpo espedientearen 15 zenbakiarekin agertzen den finkaren jabeak. Errepide Zerbitzuak txostena egin ondoren, Bide Azpiegituren Zuzendaritzak onetsi eta Foru Gobernu Kontseiluak bere egin du. Horixe da erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileei igorriko zaie, aurkeztutako alegazioa baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Alegazioei erantzun ondoren, eta Vitoria-Gasteizko 4 zenbakiko jabetza erregistroak administrazio desjabetzaile honek eskatuta egindako jabari eta kargen ziurtagiriak jaso ondoren, onespina eman behar zaio proiektu honen eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari, emandako ziurtagiriak eta finka jakin batzuen egungo aprobetxamenduak eta eragindako ondasunak kontuan hartuta.

Bestalde, desjabetze espedientea abiarazteko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adierazi behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitazeko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela, eta, ondorioz, okupazioa presakoa dela adierazi behar dela. Ildo horretan, Errepide Zerbitzuak jakinarazi duenez, Lurralde Plan Sektorialean (LPS) ezarritako programazioa betetzeko, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak erabaki du VC-2 bizikleta bidea egitea bultzatzea Arabako Foru Aldundiaren eskumeneko Bizikleta Bideen Foru Sareko hiriarteko zatian. Horretarako, aipatutako proiektua onetsi du, hiriarteko motorizatu gabeko mugikortasuna (txirrindulariarena eta oinezkoena) garatzea ahalbidetuko duen helburuaren barruan, eta horrek bizikletaz lantokietara sartzeko nahitazeko mugikortasunari lotutako joan-etorrien eguneroko fluxua xurgatuko du.

Proiektatutako bizikleta bideak honako ezaugarri hauek ditu trazadurari eta tarteen arabera tipologiari dagokienez:

1. bidezata: N-240 autobiaaren zerbitzubidearekiko paraleloa den trazadura eta 1.860 metroko luzera duen bizikleta pista bereizia, txirindularientzat bakarrik dena.

Zeharkako sekzioak 1,30 metroko bi errei, 2,60 metro zolatu eta 0,50 metroko eta 1,00 metroko alboko bermak ditu, hurrenez hurren.

2. bidezata: Bizikleta eta nekazaritza erabilerako bizikleta bide partekatua, txirindularitza zirkulaziorako lehentasuna duena, 1.090 metroko luzerakoa, N-240 errepideko zerbitzu bidearen eta Arabako Parke Teknologikoaren arteko egungo bidearen trazadura aprobetxatuz. Haren ertzak zabaldu egingo dira, erdian ibilgailuentzako 2,50 metroko erdiko errei bat hartzeko, eta ertzetan bi bizikleta errei, joan-etorrietarako, 1,50 metrokoa, harik eta gehienez 5,50 metroko zabalera sekzio zolatu bat eta 0,50 metroko eta 1,00 metroko alboko bermak osatu arte, hurrenez hurren.

2+950 KParen eta 3+115 KParen (Parke Teknologikorako sarrera) artean, bidearen egungo zorua aprobetxatuko da, 2. bidezatiko "Noranzko biko bizikleta pistarako" ezarritako zabalarekin (2,60 metroko galtzada), azken tarte horretan ez baita baimenduko ibilgailuak pasatzea.

Gaineratu duenez, Aldundiaren VC-2 bizikleta bideak argiteria publikoa izango du trazadura osoan, eta, argi intentsitateei buruz indarrean dagoen araudia betez, kontsumo txikiko eta presentzia detektatuz eragiteko sistema bat izango du.

Amaitzeko, adierazten da obrak eginda bizikleta sustatuko dela Arabako Teknologia Parkeko lantokietara ibilbide laburreko joan-etorriak egiteko garraio bide jasangarri eta osasungarri gisa, erabiltzaile mota horien zirkulazio baldintzak hobetuko direla, bizikleta trafikorako irisgarritasun-baldintzak modu seguruan hobetuko direla, erabiltzaile kaltebera horientzako egungo bidearen konfigurazioak dakartzan bide segurtasuneko arazoak konponduko direla eta lanpostuetara iristeko eguneroko mugikortasunerako mezu positibo bat transmitituko dela, abantaila guztiez sentsibilizatuz: ingurumena, ekonomia, osasuna eta jasangarritasuna.

Premiazko adierazpenaren izapide horretarako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, bat etorritik Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 178.2 artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarriaren arabera.

Arabako Foru Aldundiak du eskumena bizikleta bideak planifikatu, proiektatu, eraiki, mantendu, hobetu, ustiatu, sustatu eta zaintzeko, Autonomia erkidegoko erakundearen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7. eta 8. artikuluetan eta Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei buruzko martxoaren 8ko 4/2010 Foru Arauak 3.6 artikuluan ezartzen dutenaren arabera. Eskumen horiek betetzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legeak 2.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Erakunde honen barne eremuan, Foru Gobernu Kontseilua da organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta horiek okupatu beharra onesteko, hala xedatzen baitute honako hauek: Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Lege Araubidearen martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.1.c).7 artikulua eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarria.

Eraginpeko ondasun eta eskubideak desjabetzeko aurrekontua 116.997,58 euro da, Desjabetze Atalak jakinarazi duenez.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. "Vitoria-Gasteiztik Arabako parke teknologikorako VC-2 bizikleta bidea eraikitzeke proiektua" jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioei erantzutea, eta alegazio horiek baiestea edo ezestea, Errepide Zerbitzuak adierazitakoaren arabera.

Bigarrena. "Vitoria-Gasteiztik Arabako parke teknologikorako VC-2 bizikleta bidea eraikitzeke proiektuak" eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea (eranskina).

Hirugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra deklaratzeko, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Laugarrena. Deklaratzea honi erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunak eta eskubi-deak presaz okupatu behar direla, eta desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Bosgarrena. 116.997,58 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko aurrekontuko 50106. G/453501/60000505 "Desjabetzeak" partidaren kontura, eraginpeko ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean zerrendatutako finkei dago-kien balio justua ordain dezala aipatutako lerroaren kontura. Zenbateko hori Desjabetze Atalaren buruaren ordainketaren proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da eta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan.

Zazpigarrena. Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko titularrari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren 2023rako Aurrekontua Betearazteko abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauaren 15. artikulua.

Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertzeke errekurtoa aurkez dakioko organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak Sailaren bulegoetan –Lege Eta Administrazio Zerbitzua, Desjabetze Atala– ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapeinari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 27a

Bide Azpiegituren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila
Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

PROIEKTUA / PROYECTO
Gasteiztik Arabako Parke Teknologikorako VC-2 bizikleta bidea eraikitzeko proiektua
Proyecto de construcción de vía ciclista VC-2 Vitoria-Gasteiz - Parque tecnológico de Álava

ERANSKINA / ANEXO
Udal Mugartea / Término Municipal: Vitoria-Gasteiz

FINKA ZK	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA m ²	EGUNA	ORDUA
		POLIGONO	LURSAILA				
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES	PARCELA	BIEN AFECTADO	ALDI BATERAKO SUPERFICIE AFECTADA m ²	DIA	HORA
					SERVIDUMBRE		
2	FRANCISCO JAVIER DIAZ JUNGUITU RUIZ ALEGRIA	45	26	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	473	25/03/2024	9:00
4	BELTRAN DE HEREDIA ECHEVARRIA, M.LUISA BELTRAN DE HEREDIA ECHEVARRIA, M.ISABEL	45	24	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	616	25/03/2024	9:45
11	GRANJAS ZUYA S.A	46	75	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	1.172	25/03/2024	10:30
15	SANTOS AYALA, RAMIRO	46	68	Mendia B / Monte B Zelaia / Pradera	178	25/03/2024	12:00
3	PROBINTZIA ORDEZKARITZA, EKONOMIA ETA OGASUN MINISTERIOA / DELEGACION PROVINCIAL MINISTERIO DE ECONOMIA Y HACIENDA	45	25	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	199	25/03/2024	12:45
10	ADMINISTRAZIO BATZARRA, JUNTA ADMINISTRATIVA, RETANA	46	82	Mendia B / Monte B Ez-emankor / Improductivo	7.509	26/03/2024	9:00
12	ADMINISTRAZIO BATZARRA, JUNTA ADMINISTRATIVA, RETANA	46	77	Larrea B / Pastro B	580	26/03/2024	9:00
13	ADMINISTRAZIO BATZARRA, JUNTA ADMINISTRATIVA, RETANA	46	66	Mendia B / Monte B	1.136	26/03/2024	9:00
14	ADMINISTRAZIO BATZARRA, JUNTA ADMINISTRATIVA, RETANA	46	76	Mendia B / Monte B Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	1.566	26/03/2024	9:00
16	ADMINISTRAZIO BATZARRA, JUNTA ADMINISTRATIVA, RETANA	46	70	Mendia B / Monte B	1.866	26/03/2024	9:00
				Hesia / Vallado Eraikuntza osagarria / Construcción auxiliar Zuhazti / Arbolado	2.200	25/03/2024	10:30
				Hesia / Vallado Zuhazti / Arbolado	178	25/03/2024	12:00
				Hesia / Vallado Zuhazti / Arbolado	2	25/03/2024	12:00
				Hesia / Vallado Zuhazti / Arbolado	199	25/03/2024	12:45
				Hesia / Vallado Zuhazti / Arbolado	7.509	26/03/2024	9:00
				Hesia / Vallado Zuhazti / Arbolado	580	26/03/2024	9:00
				Hesia / Vallado Zuhazti / Arbolado	1.136	26/03/2024	9:00
				Hesia / Vallado Zuhazti / Arbolado	1.566	26/03/2024	9:00
				Hesia / Vallado Zuhazti / Arbolado	1.866	26/03/2024	9:00
				Hesia / Vallado Zuhazti / Arbolado	121	26/03/2024	9:00
				Hesia / Vallado Zuhazti / Arbolado	1.309	26/03/2024	9:00
				Hesia / Vallado Zuhazti / Arbolado	240	26/03/2024	9:00
				Hesia / Vallado Zuhazti / Arbolado	561	26/03/2024	9:00

FINKA ZK	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		ERAGINDAKO ONDASUNA	APROBETXAMENDUA	BIEN AFECTADO	ERAGINDAKO AZALERA m ²		EGUNA	ORDUA
		POLIGONO	LURSAILA				BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA		
Nº FINCA		DATOS CATASTRALES	PARCELA		APROVECHAMIENTO		DEFINITIVA	SUPERFICIE AFECTADA m ²	DÍA	HORA
17	ADMINISTRAZIO BATZARRA - JUNTA ADMINISTRATIVA: MIÑAO / MIÑANO MAYOR	39	154	Zuhaitz / Arboredo	Mendi / Monte		131	140	26/03/2024	11:45
18	ADMINISTRAZIO BATZARRA - JUNTA ADMINISTRATIVA: MIÑAO / MIÑANO MAYOR	39	155		Mendi / Monte		40		26/03/2024	11:45
5	ADMINISTRAZIO BATZARRA / JUNTA ADMINISTRATIVA: GAMARRA MENOR	45	23		Tierra de labor regadio		751		27/03/2024	9:00
1	ADMINISTRAZIO BATZARRA / JUNTA ADMINISTRATIVA: GAMARRA MAYOR / GAMARRA NAGUSIA	44	184		Labre ureztatua / Tierra de labor regadio		1.628	318	27/03/2024	9:45
6	ADMINISTRAZIO BATZARRA / JUNTA ADMINISTRATIVA: GAMARRA MAYOR / GAMARRA NAGUSIA	44	171		Larrea B / Pasto B		587		27/03/2024	9:45
7	ADMINISTRAZIO BATZARRA / JUNTA ADMINISTRATIVA: GAMARRA MAYOR / GAMARRA NAGUSIA	44	159		Larrea B / Pasto B		1.058	431	27/03/2024	9:45
8	ADMINISTRAZIO BATZARRA / JUNTA ADMINISTRATIVA: GAMARRA MAYOR / GAMARRA NAGUSIA	44	158		Labre ureztatua / Tierra de labor regadio		2.696	450	27/03/2024	9:45
9	ADMINISTRAZIO BATZARRA / JUNTA ADMINISTRATIVA: GAMARRA MAYOR / GAMARRA NAGUSIA	44	157		Mendi B / Monte B		415		27/03/2024	9:45